



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Galdakaoko Udala

Herri-galdeketa deitzea

Galdakaoko udalak, 2019/03/20an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, udalerriko auzo jakin batzuetan herri-galdeketa egiteko prozesua hastea erabaki da, Usansolo gisa ezagutzen den herrigunekoak diren ala ez diren, bertako auzokideek duten pertzepzioa zundatzeko.

Erabaki horrek Alkatetzari ahalmena ematen dio galdeketa deialdia dekretatzeko; prozesu osoa arautu behar duen egutegia finkatzeko eta, azken batean, udalbatzaren osoko bilkura horrek zehaztu ez dituen eta behar duten kontu guztiak garatzeko edota zehazteko. Hori guztia, TAOLaren 21. artikuluan eta horrekin bat datorren araudian xedatutakoa aplikatuz.

Eskumen horiek erabiliz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: 2019/03/20ko udalbatzaren osoko bilkuran erabaki den herri-galdeketa deitzea, ondoko egutegiaren arabera:

1. Galdeketa-prozesuan parte hartzeko behar den dokumentazioa etxera eramatea.
 - Epea: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratzen den egunetik apirilaren 1era arte, biak barne.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak galdeketa-prozesuaren hasiera xedatzen du, ebazpen honetan aurreikusitako epeen ondorioetarako.
2. Dokumentazioa jasotzea.

Etxean entregatzea ezinezkoa balitz, epeak, lekuak eta ordutegia ondokoak izango dira:

 - 2.1. Etxean entregatzeko ahalegina egin den ondoko 2 egunetan:
 - Lekua: Usansoloko Posta Bulegoa. Torreondo kalea, 20.
 - Ordua: 10:00 - 13:00 (astelehenetik ostiralera).
11:00 - 13:00 (larunbatak).
 - 2.2. Etxean entregatzeko ahalegina egin denetik 3. egunetik hasita 2019/04/11ra arte (biak barne):
 - Lekua: Txapelena Baserria. Torreondo kalea, Usansolo.
 - Ordua: 14:30 - 20:30 (astelehenetik ostiralera).
3. Dokumentazioa parte-hartzaileei entregatu, edo ahalegindu izanaren ziurtagiriak udalaren Idazkaritza Orokorrean entregatzea.
 - Epea: Prozesuaren 1. egunetik 2019ko apirilaren 12ko 12:00ak arte, bi egunak barne.
4. Galdera-sorta edo parte-hartze orria udalera bidaltzea edo entregatzea.

Entregatzeko lekuak eta bideak:

 - a) Edozein postontzitan.
 - Epea: Dokumentazioa jaso den egunetik eta epemuga zehatz barik. Dena den, entregatzeko bide hau aukeratzen dutenek, kontuan hartu beharko dute galdera-sorta udalean egon beharko dala hurrengo 5.1. atalean markatutako epe barruan.
 - b) Usansoloko Txapelena Baserrian, horretarako gaitutako funtzionarioari zuzenean entregatuz.



- Epea: Dokumentazioa jaso den egunetik 2019ko apirilaren 11ra arte, biak barne.
 - Ordua: 14:30 - 20:30 (astelehenetik ostiralera).
- Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, ondoko arau gehigarriak ezartzen dira:
- Postontzian edo Posta Bulegoan utziz bidaliz gero, galdera-sorta Galdakako udalak frankeoa ordainduta horretarako emandako gutun-azalean sartuta egon beharko du nahitaez. Gutun-azal hori itxita egon beharko du.
 - Gaitutako funtzionarioari zuzenean entregatuz gero, galdera-sorta aipatutako gutun-azalean sartuta egongo ez balitz ere, hori ez da oztopo izango erantzuna jaso eta baliozkoa izan dadin. Kasu hauetan, gaitutako langileak interesdunari udalaren gutun-azal ofiziala eman diezaioke, galdera-sorta bertan sartu eta hala entrega dezan. Era horretan entregatu den gutun-azala gaitutako langileen zaintzapean dagoen hautestontzi zigilatu batean sartuko da, ezarritako entregatzeko epea amaitzen den arte. Hautestontzian sartzea, kasu guztietan, gaitutako langilea eta entregatzera doan pertsona bertan direla egingo da.
5. Parte-hartzeko galdera-sortak sartuta dituzten gutun-azalak udalaren Idazkaritza Orokorrean entregatzea.
- 5.1. Posta Bulegoko langileek entregatuz gero:
- Epeak: Prozesuaren 1. egunetik 2019ko apirilaren 12ra arte, 12:00etan.
- 5.2. Gaitutako funtzionarioek jasoz gero:
- Epea: 2019ko apirilaren 12an, 12:00ak baino lehen.
- Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, 4.b) atalean jasotako epea bukatutakoan, udaltzaingoko langileek hautestontzi hartu eta zainduko dute, udal Idazkaritzari entregatu arte.
6. Udal-talde politikoei egiaztatzaileak izendatzea.
- Epea: Prozesuaren 1. egunetik 2019ko apirilaren 12ko 12:30era arte.
7. Epe barruan jasotako galdera-sorten irekitzeko egintza, azterketa eta kontaketa.
- Epea: Apirilaren 12an, 12:30ean.
8. Aipatutako udalbatzaren osoko bilkurako erabakiaren 3.11 Erregelak adierazten duen txostena egitea.
- Epea: Irekitzeko egintza, azterketa eta kontaktaren egunetik hasita 10. egun baliodunera arte.

Ebazpen honetan aurreikusitako ondorioetarako, txosten hori egiteak galdeketa-
ren prozesuaren amaiera xedatzen du, galdeketa-aren emaitzei, hala nola emaitzen aktan jasotakoei publikitate eman beharko zaielarik.

Bigarrena: Parte-hartzaileen errolda onestea, udalbatzaren osoko bilkura horretako 2. Erregelari xedatutakoaren arabera. Errolda hori parte-hartzeko eskubidea duten pertsonen soilik kontsulta dezakete, norbere datu pertsonalei dagokienean. Hala ere, datuen titularrak beste pertsona bati baimena eman diezaioke datu pertsonaletara sartzeko eta kontsultatzeko. Baimen hau, berariaz, zehatza eta argia izan beharko da, idatziz formulatua izan eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 6. artikuluan adierazten diren gainerako eskakizunak eta Eskubide Digitalen bermea bete beharko ditu.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratzea.

Galdakaon, 2019ko martxoaren 21ean.—Alkatea, Ibon Uribe Elorrieta